Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

440

EBAZPENA, 2009ko urtarrilaren 2koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, abenduaren 10eko Ebazpenean aurreikusitako laguntzak eskatzeko epea luzatzeko dena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko argitalpen-proiektuak, ikerketa-lanak eta ekintza pilotuak egiteko diru-laguntzen 2009ko deialdia arautu zen ebazpen horren bidez.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren abenduaren 10eko Ebazpenaren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko argitalpen-proiektuak, ikerketa-lanak eta ekintza pilotuak egiteko diru-laguntzen 2009ko deialdia arautu zen (2008ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Ebazpen horren 7.1 artikuluan eskabideak aurkezteko epea ezartzen da: hilabete, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 49. artikuluan adierazten denez, kasuan kasuko epea amaitu baino lehen, administrazioak bere kabuz luzatu dezake ezarritako epea, komenigarritzat jotzen bada eta besteren eskubideei kalterik egiten ez bazaie; epearen erdia luza dezake, gehienez ere (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Aurten, deialdiaren ebazpena aurreko ekitaldietan baino goizago argitaratu da, eta horregatik, komenigarritzat jo dugu eskabideak aurkezteko epea luzatzea, deialdiaren berri izateko aukera handiagoa izan dezaten interesatuek.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea, abenduaren 10eko Ebazpenaren 7.1 artikuluan ezarritakoa, luzatzea. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko argitalpen-proiektuak, ikerketa-lanak eta ekintza pilotuak egiteko diru-laguntzen 2009ko deialdia arautu zen ebazpen horren bidez. Beraz, 2009ko otsailaren 17ra arte –egun hori barne– luzatuko da laguntzetarako eskabideak aurkezteko aurtengo epea.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

440

RESOLUCIÓN de 2 de enero de 2009, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se amplía el plazo de presentación de las solicitudes de ayudas previstas en la Resolución de 10 de diciembre, por la que se regula la convocatoria de subvenciones a proyectos de publicación y a la realización de trabajos de investigación o acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2009.

Mediante Resolución de 10 de diciembre, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 30 de diciembre de 2008, se ha regulado la convocatoria de subvenciones a proyectos de publicación y a la realización de trabajos de investigación o acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2009. El artículo 7.1 de la citada Resolución establece un plazo de presentación de solicitudes de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

El artículo 49 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, señala que, antes del vencimiento del plazo de que se trate la Administración puede de oficio conceder la ampliación de los plazos establecidos en un procedimiento que no exceda de la mitad de los mismos, si las circunstancias lo aconsejan y con ello no se perjudican derechos de tercero.

Para el presente año la publicación de la Resolución de convocatoria se ha producido en fechas tan tempranas en relación a lo ocurrido en otros ejercicios, que se considera aconsejable ampliar el plazo de presentación de las solicitudes a los efectos de facilitar mayor conocimiento de la convocatoria por parte de las personas interesadas.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo único.– Se amplía el plazo de presentación de las solicitudes de ayudas establecido en el artículo 7.1 de la Resolución de 10 de diciembre, por la que se regula la convocatoria de subvenciones a proyectos de publicación y a la realización de trabajos de investigación o acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2009. El plazo de presentación de solicitudes de las referidas ayudas se extenderá hasta el día 17 de febrero de 2009, inclusive.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean emango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 2a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
IZASKUN MOYUA PINILLOS.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de enero de 2009.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
IZASKUN MOYUA PINILLOS.